

KOSTUEN EGITURA

TrashSort-en bezeroak produktuaren ezaugarri berezien eta ingurumenarekin duen balio erantsiarekiko sentikorrak dira, eta, horregatik, gure produktua kalitate altuko eta berritzaileko gisa ulertzen dute. Zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden honela azter daiteke:

1. Zenbat ordaintzeko prest daude?

Bezeroak produktuaren automatikotasuna, erabilera erraztasuna eta jasagarritasunarekiko ekarpena baloratzen dituzte.

- Etxeko erabiltzaileak: Kalitatezko produktu batengatik kostu ertain-altu bat ordaintzeko prest daude, kontuan hartuta produktu honek denbora aurrezteko eta ingurumenarekiko eragina murrizteko laguntzen diela. Prezioa gutxi gora behera 2500 eurokoa izan daiteke, gehienbat familiaren edo etxeko taimainaren arabera.
- Enpresa eta erakundeak: Produktua inbertsio gisa ulertzen dute, bere irudi jasagarria hobetzeko eta kudeaketa-eraginkortasuna areagotzeko. Enpresak prezio altuago bat ordaintzeko prest egon daitezke, 3000 euroko tartean, erabilera intentsiboagoaren eta aurreztutako denboraren balioa kontuan hartuta.

2. Nola ordaintzeko prest daude?

- **Erosketa bakarra:** Bezero askok TrashSort erosteko aukera balioko lukete, hau da, ordainketa bakarrean produktua lortuz.
- **Ordainketa zatituak:** Prezio altuagatik, bezero batzuk ordainketa zatituen aukera eskatuko lukete, erosotasuna eta eskuragarritasuna handitzeko.